

# **Donostia 2016ren inaugurazio-ekitaldiek bide erdia egin dute**

**Hirugarren inaugurazio-jardunaldiaren ekitaldi nagusiak 1966 | Gaur Konstelazioak | 2016 erakusketaren irekiera, Babelgo Liburutegiaren inaugurazioa eta DSS2016EUren enbaxada ibiltarien aurkezpena izan dira.**

Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuaren inaugurazio-ekitaldien hirugarren eguna San Telmo Museoan hasi da, 1966 | *Gaur Konstelazioak* | 2016 erakusketaren aurkezpenarekin. Fernando Golvano komisario duela, erakusketak 50 urtez banatutako bi testuinguru artistiko erakusten ditu: Gaur mugimendua eta Kairós garaikidea.

Aurkezpenean hurrengoak mintzatu dira: Susana Soto, San Telmo Museoko zuzendaria; Miren Azkarate, Donostia 2016 Hiriburutzako, Kulturako, Euskal Herriko eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkaria; Pablo Berástegui, Donostia 2016ren zuzendari orokorra eta Fernando Golvano, erakusketaren komisarioa.

Miren Azkarateren hitzetan: «Gaur taldearen kide gehienak joan zaizkigu; hala eta guztiz ere, modernotasun guzia gordetzen duen obra horri beste belaunaldi baten ikuspuntua gehitu zaio. Modu horretan, hemen ere agertzen da zubiaren metafora, DSS2016EUren proiektuan horrenbeste garrantzia duena».

Horren harira, Xabier Payak hurrengoa azpimarratu du: «Elkarrekin bizitzeko kultura, Donostia 2016k aukeratu duen goiburua, suposatzen duenaren eredu bikaina izan liteke. Izañ ere, diktadurak markatutako testuinguru latz horretan, arte eta kulturarekin lotutako pertsonak batu ziren taldean, haien artean desberdintasunak alde batera utziz».

Informazio gehiago [hemen](#)

## ***Babelgo Liburutegia***

Geroago, beste erakusketa bat inauguratu da, *Babelgo Liburutegia*. José Ignacio Díaz de Rábago artistaren eskutik heldu zaigu Centro Carlos Santamaría Zentroko sarreran kokatu den instalazio hau. Modu honetan, Euskal Herriko Unibertsitatea batu da Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuaren inaugurazio-ekitaldietara.

Instalazioa urte osoan zehar ikusi ahal izango da, eta liburua objektu artistiko gisa du ardatz. Horrez gain, Gipuzkoako Kanpuseko liburutegi nagusia barne hartzen duen eraikin adierazgarri honen zehaztasun espazial eta arkitektonikoak azpimarratzen ditu.

Babelgo Liburutegia ipuinean, Jorge Luis Borgesek gogoeta egiten du betiereko liburutegiaz ostattutako unibertsio batez, gizakia baino lehenagokoa, eta liburu guztiak edonola antolatuta dituena. José Ignacio Díaz de Rábagoren instalazioan, bi mila liburu inguruk lebitatzen dute, euren funtzioaz askatuta; hala, eraikuntza-material bihurtu dira, printzipioz ez dagokien lekuaz jabetuz.

Aurkezpenean izan dira Ana Arrieta, UPV/EHUko Gipuzkoako Kanpuseko errektoreordea; Fernando Álvarez Busca, Donostia 2016ren komunikazio zuzendaria; eta José Ignacio Díaz de Rábago, obraren sortzailea.

## **Europan ibilbidea hasi du Donostiak**

Egunaren lehen zatia amaitzeko, Donostia 2016k bere enbaxada ibiltariak aurkeztu ditu, mugak gainditzen eta Europako publikora heltzeko. Guztira, DSS2016EUk hiru enbaxada diseinatu ditu kontinentean zehar ibiltzeko: Biziz, Europa Transit eta Tosta.

Aurkezpen ofizial honetarako, Europa Transit enbaxada, XX. mendeko Europako hamar gatazkaren gaur egoera aztertuko duena, hirian zehar ibili da eta Alderdi Ederren egon da aparkatuta 12:00etatik 15:00etara. Segidan, bere bidaia hasi du. Hurrengo hiri europarretatik igaroko da: Ceuta, Belfast, Dresden, Wroclaw, Kaliningrado, Pristina, Sarajevo, Plovdiv, Istanbul eta Pafos.

Aurkezpenean mintzatu dira Donostiako alkatea, Eneko Goia; Donostia 2016ren zuzendari orokorra, Pablo Berástegui; eta Donostia 2016ren kultur zuzendaria, Xabier Paya. Horrez gain, Euskadiko talde kontsularreko kideak egon dira, baita Donostiako Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkarriak ere.

Informazio gehiago [hemen](#)

## **...eta askoz jarduera gehiago**

Programazioak aurrera egin du eta, aipatutakoez gain, beste zenbait ekitaldi egon dira hirian. Nabarmenetako bat danborrada robotiko tailerra izan da. Joan direnek robot-mozorroak egin eta elektronikari buruzko oinarrizko ezagutzak ikasi dituzte, eta egin dituzten mozorroekin bihar desfilea egingo dute. Aipatzeko da ere Tabakaleran gertatu den Jasmina Wojcik artista poloniaren instalazioaren inaugurazioa.

## **Donostia 2016k informazio-puntu bat ireki du Alderdi Ederren**

DSS2016EUk informazio-puntu bat ireki berri du Alderdi Ederren eta aurrerantzean hori izango da tokia Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburutzaren kultur proiektuari buruzko informazioa lau hizkuntzatan (euskarra, gaztelania, frantsesa eta ingelesa) eskuratzeko eta baita datozen hilabeteetan izango diren ekitaldiei buruzko xehetasunak ezagutzeko ere. Informazio-puntu barne hartzen duen pabilioia aldi baterakoa izango da eta [Zuloark kolektiboak proposatu eta sortu du](#).

Informazio-gune berri honek egunero irekiko ditu ateak 11:00etatik 19:00etara.

## **Gonbidapenen bigarren sorta bat**

Astelehenean ezagutzena eman zenez, inaugurazio-ekitaldi batzuetara joateko gonbidapenak jarri ziren aste honetan herritarren eskura, baina ordu gutxirenen buruan amaitu egin ziren. Arrakasta ikusita, Donostia 2016k gonbidapenen bigarren sorta bat ateratzea erabaki du datozen jardueretarako:

Larunbata, urtarrilak 23, 21:00

Victoria Eugenia Antzokia

Arantza Ezenarro kontzertuan (Musika Hamabostaldiarekin lankidetzen)

Larunbata, urtarrilak 23, 22:00

Victoria Eugenia Antzokia

Musikeneko Teklatu eta Kantu departamentuaren kontzertua

Larunbata, urtarrilak 23, 22:00

Santa Maria Basilika

Donostiako Orfeoiaren kontzertua

Larunbata, urtarrilak 23, 22:00

Antzoki Zaharra

Antzezlana: Me llamo Suleimán (dFERIArekin lankidetzen)

Igandea, urtarrilak 24, 17:00

Antzoki Zaharra

La Loi de Marché filmaren emanaldia (Giza Eskubideen Zinemaldiarekin lankidetzen)

Gonbidapenak bihar, larunbata, urtarrilak 23, jaso ahal izango dira 10:00etatik aurrera 2016 Gunean. Gonbidapenak edukiera bete arte banatuko dira. Lagun bakoitzak asko jota bi gonbidapen lortu ahal izango ditu guztira.

## Biharko agenda

Bihar, urtarrilak 23, egingo diren jardueren egitaraua [hemen](#) ikus daiteke.

## Eguneko argazkiak

[Hemen](#) ikus daitezke

## **Bihar, urtarrilak 23, komunikabideei zuzendutako deialdiak eta komunikazioak**

### **ARGAZKIRAKO DEIALDIA**

## **Danborraden elkartzea - 12:00 - Kontxako hondartza**

**Komunikabide grafikoei deialdia luzatzen zaie Kontxako erlojuen ondora etor daitezen.**

Ia 4.000 lagun bilduko dituen danborraden elkartze jendetzu honen helburua da herritarrei inaugurazio-ekitaldietan parte hartzeko deia egitea. Konpainiak 11:30etik aterako dira hiriko puntu ezberdinatik.

## **PRENTSAURREKOA:**

### **Iturriak / Fuentes - 13:30 - Ondarretako lorategia**

Maider Lopezen Iturriak proiektuaren aurkezpena eta inauguraziona. Pagadi kaian kokatzen den proiektu honen xedea duela hainbat urte hirian kendu zituzten iturriak berreskuratzea da, leku horien oroimena indarberritzeko.

Parte hartuko dute:

- Maider López, artista eta Iturriak / Fuentes instalazioaren sortzailea.
- Pablo Berástegui, Donostia 2016ren zuzendari orokorra.
- Denis Itxaso, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol diputatua.

## **EUROPAKO KULTUR HIRIBRUAREN PLAKA ENTREGATZEKO EKITALDI OFIZIALA**

**Victoria Eugenia Antzokia**

**Ekitaldia 18:00etan hasiko da, baina komunikabideek 17:15ean duzue hitzordua, sarrera nagusiaren parean.**

Europako komisario batek Europako Kultur Hiriburuaren izendapen-plaka entregatuko dio Donostiari. Akreditazioa beharko da.

Bertan izango dira honako ordezkari instituzionalak: Eneko Goia, Donostiako alkatea; Iñigo Urkullu, lehendakaria; Iñigo Méndez de Vigo, Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministroa; Markel Olano, diputatu nagusia; eta Martine Reicherts, Europako Batzordeko Hezkuntza eta Kultura sailetako zuzendari orokorra. Horrez gain, DSS2016EU proiektuaren ordezkariek ere hartuko dute hitza: Pablo Berásteguik, Donostia 2016ren zuzendari orokorrak; eta Xabier Payak, Donostia 2016ren kultur programaren zuzendariak.

Galak zati artistiko bat ere izango du, eta Patxi Barco aktore, zuzendari eta errerealizadoreak prestatu du. Bere zuzendaritzapean, ekitaldiaren parte izango dira musika- eta dantza-emanaldiak, eta baita arte plastikoen erakustaldi bat ere. Horietarako, Barcok honako artisten parte-hartzea izango du: Demodé Quartet, Txema Esteban, Kukai Dantza Taldea eta Clara Muñoz eta Maialen Egiazabal biolontxelo-jotzaileak.

## **ELKARBIZITZAREN ZUBIA**

Bihar, urtarrilak 23, 20:00etan, Maria Kristina zubian eta ingurueta ospatuko da Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuaren inaugurazioko ekitaldi nagusia: Elkarbizitzaren Zubia.

Komunikabide akreditatuek lau gune izango dituzue emanaldia jarraitzea, bi ertz bakotzeko, atxiki den mapan ikus dezakezuenet.

Prentsarako espresuki prestatutako guneetara heltzeko, hurrengo jarraibideak jarraitu ditzakezue:

**-Zuzenean Elkarbizitzaren Zubia emanaldira joango diren kazetariantzat:**

Zubiaren bi ertzeten zein aurrean egongo dira, ongi identifikatuta, boluntarioak eta Donostia 2016ko langileak. Haien lagunduko dituzte akreditatutako kazetariei, argazkilariei eta kamerei guneetaraino. Sarbideak ahalik eta hoheren kudeatzeko, gomendagarria da emanaldia izango den lekura 19:00etan heltzea.

**-Aurretik Victoria Eugenia Antzokiko erakunde-ekitaldian egon diren komunikabideentzat:**

Autobus batek kazetariak jasoko ditu erakunde-ekitaldia amaitu bezain laster eta Tabakaleraino eramango ditu. Heldu ondoren, lurpeko pasabidea zeharkatuz, emanaldiko gunera eta, handik, prentsarako guneetara. Kasu horretan, komunikabideek emanaldia ikusi beharko dute Tabakaleraren ertzeko bi puntu prestatuetako batetik (hau da, ezin izango dute zubia zeharkatu gainerako prentsa-guneetara joateko).

Komunikabide bakoitzaren esku utziko da zein gunera joatea erabakitzea. Guztietatik ezin hobeki ikusi ahal izango da ekitaldian gertatzen dena. Kontuan izan beharko da, hala ere, ezin izango dela inola ere Maria Kristina zubia zeharkatu. Zeharkatu ahal izango dira, ordea, bi ertzetako paseoetan kokatutako ekitaldi-guneak, 19:30etara arte. Ordu hartatik aurrera, prentsa-guneetara heltzeko aukera bakarra publikoaren artean pasatzea izango da.

Ezinbestekoa izango da akreditazioa eramatea.

**PRENTSA-OHARRA: URTARRILAK 23KO LABURPENA + EKITALDI INSTITUZIONALA**

Ordua: 19:00

Titularra:

Donostiak Europako Kultur Hiriburuaren izendapen ofiziala jaso du.

Edukiak:

- Donostia Europako Kultur Hiriburu izendatzeko egindako ekitaldi ofizialaren kontakizuna.
- Urtarrilaren 23ko gainontzeko ekitaldien errepasoa.
- Urtarrilaren 24ko komunikazio-ekitaldien aurrerapena
- Argazki-galeria

**PRENTSA-OHARRA: ELKARBIZITZAREN ZUBIA IKUSKIZUNA**

Ordua: 21:00

Edukiak:

- Hansel Cerezak sortutako ikuskizunaren kontakizuna.
- Donostia 2016ko ordezkarien adierazpenak.
- Argazki-galeria.

## **Los actos inaugurales de San Sebastián 2016 llegan al ecuador**

**Los platos fuertes de la tercera jornada inaugural han sido la apertura de la exposición 1966 | Gaur Konstelazioak | 2016, la inauguración de la Biblioteca de Babel y la presentación de las embajadas itinerantes de DSS2016EU.**

El tercer día de los actos inaugurales de San Sebastián 2016, Capital Europea de la Cultura, ha comenzado con la presentación en el Museo San Telmo de la exposición 1966 | *Gaur Konstelazioak | 2016*. Con Fernando Golvano como comisario, la exposición recoge dos contextos artísticos separados por 50 años: el movimiento Gaur y el Kairós contemporáneo.

La presentación ha estado dirigida por Susana Soto, directora del Museo San Telmo; Miren Azkarate, concejala delegada de la Capitalidad San Sebastián 2016, Cultura, Euskera y Educación; Pablo Berástegui, director general de San Sebastián 2016 y Fernando Golvano, comisario de la exposición.

En palabras de Miren Azkarate: “la mayor parte de los miembros del grupo Gaur se nos han ido, sin embargo, a esa obra que aún guarda toda la modernidad, se le ha sumado la perspectiva de otra generación. De esta manera, también está presente aquí esa metáfora del puente que tanto significado cobra en el proyecto de DSS2016EU”.

En esa misma línea, Xabier Paya ha destacado que “Gaur podría ser un ejemplo de lo que supone la Cultura para convivir, que San Sebastián 2016 ha adoptado como lema. Y es que, en un contexto hostil durante la época de la dictadura, el arte y la cultura sirvieron para unir en el seno de este grupo a personas de recorridos y corrientes muy dispares”.

Más información [aquí](#)

**La Biblioteca de Babel**

Poco después se ha inaugurado otra exposición, *Biblioteca de Babel*. Esta instalación, situada en el hall del Centro Carlos Santamaría, es obra del artista José Ignacio Díaz de Rábago. De esta manera, la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea se ha sumado a los actos de inauguración de San Sebastián 2016, Capital Europea de la Cultura.

La instalación, que se podrá ver durante todo este año, se articula en torno al libro como objeto artístico y pone en valor las características espaciales y arquitectónicas de este emblemático edificio del Campus de Gipuzkoa, que alberga, además, su biblioteca central.

'La Biblioteca del Babel' es un cuento en el que Jorge Luis Borges especula sobre un universo formado por una biblioteca eterna, preexistente al ser humano y que contiene todos los libros arbitrariamente ordenados. En la instalación de José Ignacio Díaz de Rábago cerca de dos mil libros levitan liberados de su función y han pasado a convertirse en material de construcción, apropiándose de un lugar que en principio no les corresponde.

La presentación ha contado con la presencia de Ana Arrieta, vicerrectora del Campus de Gipuzkoa de la UPV/EHU; Fernando Álvarez Busca, director de comunicación de San Sebastián 2016; y José Ignacio Díaz de Rábago, autor de la obra.

## **San Sebastián comienza su recorrido por Europa**

Para terminar la primera parte del día, San Sebastián 2016 ha presentado sus embajadas móviles, con las que aspira a traspasar fronteras y a alcanzar audiencias europeas. En total, DSS2016EU ha diseñado tres embajadas con las que itinerará por el continente: Biziz, Europa Transit y Tosta.

Para esta presentación oficial, la embajada Europa Transit, un autobús cuya misión será investigar la situación actual de diez conflictos de la Europa del siglo XX, se ha dejado ver por la ciudad y ha estado aparcada en Alderdi Eder de 12:00 a 15:00. Acto seguido, ha emprendido su viaje, que le llevará a recalcar en diez ciudades europeas: Ceuta, Belfast, Dresde, Wrocław, Kaliningrado, Pristina, Sarajevo, Plovdiv, Estambul y Pafos.

En la presentación han intervenido el alcalde de San Sebastián, Eneko Goia, el director general de San Sebastián 2016, Pablo Berástegui y el director cultural de San Sebastián 2016, Xabier Payá. Además, han estado presentes miembros del cuerpo consular de Euskadi así como representantes del Ayuntamiento de San Sebastián y la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Más información [aquí](#)

**...y muchas más actividades**

La programación ha seguido su curso y han tenido lugar en la ciudad otra docena de actividades además de las ya mencionadas. Una de las que ha destacado ha sido el taller de Tamborrada robótica en la que las y los asistentes han fabricado disfraces de robot y han aprendido nociones básicas de electrónica. Con los disfraces que han confeccionado, mañana realizarán un desfile. También es digna de mención la inauguración de la instalación realizada por la artista polaca Jasmina Wojcik, ubicada en Tabakalera.

## **San Sebastián 2016 abre un punto de información en Alderdi Eder**

DSS2016EU acaba de abrir un punto de información en Alderdi Eder, que será durante los próximos meses el lugar en el que se podrá obtener información en cuatro idiomas (euskeras, castellano, francés e inglés) sobre el proyecto cultural de San Sebastián 2016, Capital Europea de la Cultura, así como la programación de actividades prevista para los próximos meses. El pabellón que acoge el punto de información es de carácter efímero y ha sido [propuesto y realizado por el colectivo Zuloark](#).

El punto de información se abrirá diariamente de 11:00 a 19:00.

## **Segunda remesa de invitaciones**

El conjunto de invitaciones para ciertos actos inaugurales que se puso a disposición de la ciudadanía esta semana, tal y como se anunció el lunes, se agotó en pocas horas. Visto el éxito, San Sebastián 2016 ha decidido sacar una segunda remesa de invitaciones para las siguientes actividades:

Sábado, 23 de enero, 21:00

Teatro Victoria Eugenia

Arantza Ezenarro en concierto (con la colaboración de la Quincena Musical)

Sábado, 23 de enero, 22:00

Teatro Victoria Eugenia

Concierto del dpto. de Teclado y Canto de Musikene

Sábado, 23 de enero, 22:00

Basílica Santa María

Concierto del Orfeón Donostiarra

Sábado, 23 de enero, 22:00

Teatro Principal

Teatro: Me llamo Suleimán (con la colaboración con dFERIA)

Domingo, 24 de enero, 17:00

**Teatro Principal:**

Proyección de la película La Loi de marché (con la colaboración del Festival de Cine y Derechos Humanos)

Las invitaciones podrán recogerse mañana, sábado, 23 de enero, a partir de las 10:00 en el Espacio 2016. Las invitaciones se repartirán hasta completar el aforo. Cada persona podrá obtener dos invitaciones máximo.

## **Agenda de mañana**

El programa de actividades de mañana, 23 de enero, se puede ver [aquí](#)

### **Fotos del día**

Se pueden ver [aquí](#)

## **Convocatorias y comunicaciones para medios de comunicación para mañana, 23 de enero**

### **CONVOCATORIA FOTO**

**Concentración de tamborradas - 12:00 - Playa de la Concha**

**Se convoca a los medios gráficos frente a los relojes.**

Multitudinario encuentro de casi 4.000 miembros de las tamborradas con el objetivo de llamar a la ciudadanía a la participar en los actos de inauguración. Las compañías saldrán desde diferentes puntos de la ciudad sobre las 11:30.

### **RUEDA DE PRENSA:**

**Iturriak / Fuentes - 13:30 - Jardines de Ondarreta**

Presentación e inauguración de la instalación Iturriak / Fuentes, de Maider López, que consiste en recuperar fuentes de la ciudad retiradas hace muchos años con la intención de recobrar la memoria de estos lugares.

Asistirán:

- Maider López, artista y autora de la instalación Iturriak / Fuentes.
- Pablo Berástegui, director general de San Sebastián 2016.
- Denis Itxaso, diputado de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes.

## **ACTO INSTITUCIONAL DE ENTREGA DE LA PLACA DE CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA**

**Teatro Victoria Eugenia**

**El evento comienza a las 18:00, pero los medios de comunicación estás convocados a las 17:15 en la entrada principal.**

Una representante de la Comisión Europea hará entrega de una placa que ratificará que San

Sebastián será Capital Europea de la Cultura 2016. Con acreditación.

Intervendrán en el acto Eneko Goia, alcalde de San Sebastián; Iñigo Urkullu, lehendakari; Iñigo Méndez de Vigo, ministro de Educación, Cultura y Deporte; Markel Olano, diputado general; y Martine Reicherts, directora general de Educación y Cultura de la Comisión Europea. Además tomarán la palabra Pablo Berástegui, director general de San Sebastián 2016, y Xabier Paya, director del programa cultural de San Sebastián 2016.

La gala tendrá una parte artística que ha sido dirigida por el actor, director y realizador Patxi Barco. Bajo su dirección, se incorporarán al evento actuaciones musicales, de danza y de artes plásticas, que contarán con la participación de Demodé Quartet, Txema Esteban, Kukai Dantza Taldea y las chelistas Clara Muñoz y Maialen Egiazabal.

## **PUENTE DE LA CONVIVENCIA**

Mañana, 23 de enero, a las 20:00 en punto tendrá lugar en el puente María Cristina y sus aledaños el acto central de inauguración de San Sebastián 2016, Capital Europea de la Cultura: Puente de la convivencia.

Los miembros de la prensa acreditada contarán con cuatro espacios exclusivos para poder seguir este espectáculo, dos a cada orilla.

Para poder llegar a estos lugares expresamente habilitados para la prensa, habrá que seguir estas indicaciones:

- Para las y los periodistas que acudan directamente al espectáculo Puente de la convivencia:  
A ambos lados del puente y frente a él estarán debidamente identificados voluntarios así como el equipo de trabajo de San Sebastián 2016, que guiarán hasta esos puntos a los periodistas, fotógrafos y cámaras acreditados. Para poder gestionar mejor los accesos, se recomienda llegar a las 19:00 al lugar donde se realizará el espectáculo.
- Para los medios que hayan estado previamente en el acto institucional del Teatro Victoria Eugenia:  
Tendrán a su disposición un autobús que inmediatamente después de la finalización del acto institucional recogerá a los periodistas y los llevará hasta Tabakalera. Una vez allí, y atravesando el paso subterráneo, llegarán a la zona del espectáculo y, desde ese punto, a los espacios para prensa. Los medios cuyo caso sea este, tendrán que ver el espectáculo desde uno de los dos puntos habilitados en la orilla del lado de Tabakalera (es decir, no podrán cruzar el puente para acudir a uno de los restantes espacios de prensa).

Será decisión de cada medio escoger a cuál de los espacios acudir. Desde todos ellos se podrá ver perfectamente lo que ocurre en el acto. Hay que tener en cuenta, eso sí, que en ningún caso se podrá cruzar el puente María Cristina. Sí se podrán atravesar, no obstante, las zonas de actuación situadas en los paseos de ambas orillas, hasta las 19:30. A partir de esa hora, no quedará otra opción que abrirse paso entre el público asistente para llegar a los espacios de prensa.

Es imprescindible acudir con la acreditación.

#### **NOTA DE PRENSA: RESUMEN DÍA 23 + ACTO INSTITUCIONAL**

Hora: 19:00

Titular:

San Sebastián recibe la placa oficial de Capital Europea de la Cultura

Contenidos:

- Contar en qué ha consistido el acto oficial de investidura de San Sebastián como Capital Europea de la Cultura 2016.
- Resumen de las actividades del día 23.
- Avance de las actividades comunicativas principales del 24 de enero.
- Galería de fotos.

#### **NOTA DE PRENSA: ESPECTÁCULO PUENTE DE LA CONVIVENCIA**

Hora: 21:00

Contenidos:

- Relato del espectáculo diseñado por Hansel Cereza.
- Declaraciones de los responsables del proyecto San Sebastián 2016.
- Galería de fotos.